



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2018ko MAIATZAREN 9ko INSTRUKZIOA, HEZKUNTZA SAILAREN MENPEKO KOLEKTIBOETAN ERRETIRO PARTZIALA HARTZEN DUTEN PERTSONEK ZERBITZUAK EMATEKO MODALITATEEI BURUZKOA.

1.- AURREKARIAK.

Funtzio Publikoko sailburuordearen otsailaren 28ko 1/2018 zk.ko instrukzioak arautzen ditu erretiratu partzialak, erabateko erretirora iritsi arte dagozkion lan-orduak egiteko, zerbitzua emateko erabili ahal izango dituen modalitate desberdinak.

Bosgarren puntuan aurreikusten denez, instrukzioa gauzatzeko negoziatzeko eremu sektorial desberdinetan ematen diren arauak instrukzio horren edukia eta printzipioak errespetatu beharko dituzte.

2.- HELBURUA.

Errelebu-kontratuaren baldintzak, erretiro partzialaren egoeran dagoen pertsonak eta berorren errelebu egiten duen zerbitzua emateko modalitatea, eskaerak aurkezteko epea eta erretiro partzialari lotutako beste gai batzuk arautzea ditu instrukzio honek helburu.

Batez ere, zerbitzuen prestazioa metatzeko erretiratu partzialaren aukera kudeatzeko modua arautzen da, bai 2018an hasten diren erretiro partzialen kasuan, bai indarrean dauden eta erretiratu partzialak falta zaizkion zerbitzuen prestazioa metatzeko eskatzen duen horien kasuan, behin-betiko erretiroaren data zein izango den kontuan hartuta.

Funtzio Publikoko sailburuordearen instrukzioan xedatutakoaren arabera jokatuko da instrukzio honetan espezifikoki arautzen ez diren puntu guztietan.

3.- APLIKAZIO EREMUA.

Instrukzio hau ondoren aipatzen den pertsonalari aplikatuko zaio:

- Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakaskuntza-eta hezitzaile-pertsonal finkoa.
- Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonal finkoa.
- Hezkuntza Saileko lan-legepeko Erljioko pertsonala.

4.- INDARRALDIA.

Erretiro partziala eragiten duen gertaera 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago gertatzen den erretiroei aplikatuko da instrukzio hau, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



5.- 2018. URTEAN HASITAKO ERRETIRO PARTZIALAK: KONTRATATZEKO BALDINTZAK.

Erretiro partzialaren modalitate hau errelebu-kontratua aldi berean formalizatzeari lotuta dago. Premiak lanaldi osoan betetzeko zerrendetan prest egoeran dagoen lehenengoari eskainiko zaio errelebu-kontratua.

Kontratazio hori ondorengo baldintzetan egin beharko da:

1º.- Erretiratu partzialak urtean bere lanaldiaren % 25 ematen badu:

- Denbora partzialeko errelebu-kontratu bat izenpetuko da. Kontratu horren lanaldia % 75ekoa izango da. Horiek horrela, langile erretiratu partzialaren lanaldiaren eta haren errelebua hartzen duen langilearen errelebu-kontratuan ezarritako lanaldiaren batuketa ez dadin erretiro partziala eskatu duen langilearen lanaldiaren % 100etik gorakoa izan, hori izanda errelebu-kontratua baimentzen den lanaldiaren gehieneko iraupena.
- Iraupen zehatz bateko errelebu-kontratua erretiratu partziala behin-betiko erretirora.

2º.- Erretiratu partzialak erretiro partzialera sartu den datatik 64 urte- enplegua sustatzeko erretiroa hartzen badu- edo 65 urte- derrigorrezko erretiroarekin- bete arteko aldiaren **zerbitzuak erretiro partzialaren lehen urtean metatzen baditu.**

- Errelebu-kontratua lanaldi osoan izenpetuko da, iraupen zehatz bat izango du -erretiratu partziala behin-betiko erretirora iritsi arte- eta errelebua egiten zaion langilearen lanpostuaren kategoria bereko beste lanpostu batean gauzatuko da.
- Modalitate honetarako sarbidea errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuaren kategoria bereko beste bat existitzearen menpe egongo da.

6.- 2018. URTEAN HASITAKO ERRETIRO PARTZIALAK: ZEBITZUAK EMATEA.

1º.- Erretiratu partzialak zerbitzuak ematea:

Zerbitzuak bi modutan eman ahal izango dira eta langileak zein nahi duen aukeratuko du, betiere haren lehentasuna zerbitzuaren premiekin bateragarri bada.

- **Zerbitzuak urtean** (hilabeteak /urtea) **ematen badira**, urteko aldi batean edo ikasturte osoan lanaldi osoan eman beharko ditu erretiratu partzialak zerbitzuak.

Egoera formalizatzen den unean, 1. urtean, eta irailtik aurrera gainontzeko ikasturteetan, hasiko da zerbitzuak ematen errelebua egiten zaiona.

- **Zerbitzuak ematea aldi bakar batean**, irailan hasiko den erretiro partzialaren lehen urtean, metatzen bada, erretiroa 64 edo 65 urterekin



hartzeko asmoa duen jakinarazi beharko dio langileak Administrazioari, zerbitzuak emateko aldia zehatz kalkulatzeko.

2º.- Errelebu-kontratua egiten duenak zerbitzuak ematea:

Errelebu-kontratua egiten duenaren zerbitzu-aldia zehazteko, erretiratu partzialak zerbitzuak emateko aukeratutako modalitatea hartu beharko da kontuan:

- **Erretiratu partzialak zerbitzuak urtean ematen baditu:** aldi batean metatzen badira, erretiratuak prestazioa bukatu ondoren hasiko da zerbitzuak ematen errelebua egiten duena; erretiratuak zerbitzuak ikasturte osoan ematen baditu, errelebua egiten duenak aldi batean emango ditu zerbitzuak, erretiratu partzialaren urteko lanaldia osatuz.
- **Erretiratu partzialak zerbitzuak erretiro partzialaren lehen urtean era metatuan ematen baditu,** langilea erretiro partzialera sartu den egun berean hasi beharko du zerbitzuak ematen errelebua egiten duenak.

Erretiro partziala indarrean dagoen lehen urtean eta erretiratu partzialak zerbitzuak lanaldi osoan ematen dituen aldian, erretiratu partzialarena ez den beste lanpostu batean, lanaldi osoan, emango ditu errelebua egiten duenak zerbitzuak.

Erretiratu partzialak zerbitzuak ematen bukatu ondoren, erretiratu partzialaren lanpostuan emango ditu errelebua egiten duenak zerbitzuak.

7.- 2018. URTEA BAINO LEHENAGOKO ERRETIRO PARTZIALAK: METATZEAN ZERBITZUAK EMATEA ETA BALDINTZAK.

2018. urtean baino lehenago hasitako erretiro partzialen kasuan, erretiratu partzialak lanaldiaren % 25ean eman bazituen urte bakoitzean zerbitzuak eta geratzen zaion aldia behin-betiko erretiroa hartuko duen dataren arabera metatu nahi badu, 64 edo 65 urterekin hartuko duen erretiroa adierazi beharko du eskaeran, zerbitzuak eman dituen aldia kalkulatzeko.

Behin-betiko erretiroa 2019ko abuztuaren 31a ondoren gauzatzen bada, errelebu-kontratua aldatuko da eta, errelebua egiten duenak aldezturik oniritzia eman ondoren, lanaldiaren % 100ean berrituko da. Zerbitzuak beste lanpostu batean ematea onartu beharko du erretiratu partzialak, bere lanpostua errelebua egiten duen pertsonak bete dezan. Bere errelebu-kontratuan agertzen den lanpostuan emango ditu errelebua egiten duenak, lanaldi osoan, zerbitzuak.

Errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuaren kategoria bereko beste lanpostu desberdin bat existitzearen menpe egongo da zerbitzuak era metatuan ematera sartu ahal izatea. Halaber, errelebua egiten duenak proposatutako kontratu-berritzea onartu beharko du.

8.- LEHENTASUN HURRENKERA ZERBITZUAK ERA METATUAN EMATEKO.

Zerbitzuak era metatuan emateko eskaera guztiei erantzuna eman ahal izateko errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuaren kategoria berean lanpostu nahiko



ez egotekotan, erretiro partziala lehenengo hartu duten langileek lehentasuna izango dute. Hau da, eskaerak aztertu eta ebatziko dira erretiro partziala hartu zuten dataren arabera ordenatuta, lehenengo hartu zutenetik azkenenerarte. Sarbidearen data berdina izatekotan, "V" letratik ordenatuko dira (2018/19 ikasturterako Sailaren prozeduretarako zozketaren letra).

9.- ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEAK.

Erretiro partziala eskatzen duen eta zerbitzuak urtean (hilabeteak /urtea) ematea erabakitzen duen langileak erretiro partzialera, aurreikuspenen arabera, sartuko den data baino 2 hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu beharko du eskaera. Eskaerak lurralde bakoitzeko Hezkuntza Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dira, gaineratzen den eredu normalizatuaren arabera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuz. Kasu horietan, ikasturtean zehar ondorengoa izango da erretiro partzialak formalizatzeko azken eguna:

Lan-legepeko hezitzaile- eta irakaskuntza-pertsonal finkoarentzat: apirilaren 30a.

Lan-legepeko Erljioko pertsonalarentzat: apirilaren 30a.

Lan-legepeko pertsonal finkoarentzat: maiatzaren 31.

Erretiratu partzialak zerbitzuak emateko lehen urtea aldi bakarrean metatzea aukeratzen badu, 2018ko ekainaren 15era arte, barne, aurkeztu beharko du erretiroa 64 edo 65 urterekin hartuko duen aditzera emateko eskaera. Kasu horretan, erretiro partziala irailean formalizatuko da.

Bi kasu horietan, erretiro partzial berriak direnez, erretiro partzialarengatik pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioarekin batera aurkeztuko da eskaera –Eranskinean agertzen dena-.

2018. urtea baino lehenagoko erretiro partzialen kasuan, egiteko geratzen diren zerbitzuen metaketa eskatzeko idazkia Langileak Kudeatzeko Zuzendariari aurkeztu behar zaio. Kasu honetan ere, epea ekainaren 15era arte, hau barne, izango da.

10.- ERRETIRATU PARTZIALAREN ORDAINSARIAK ETA KOTIZAZIOA.

Erretiratu partzialak, denbora partzialeko lan-kontratua ezarritako legeko edo konbentziosko arazoiengatik iraungitzen ez bada, bere lanaldiari dagozkion ordainsariak jasoko ditu, hots, lanpostuaren ordainsarien % 25; horrela alta-egoeran jarraituko du Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, erretiro partzialaren datatik erabateko erretirora arte.

Sail honekin zerikusirik ez duen edozein arazoiengatik, heriotza edo ezintasun iraunkorra esate baterako, erretiratu partzialak izenpetutako denbora partzialeko kontratua erabateko erretiroaren adina baino lehenago iraungitzen bada, Sail honek ez du izango erretiratu partzialak eman zezakeen zerbitzu-aldiaren ardurarik eta, horregatik, ez zaio zirkunstantzia horregatik inolako zenbatekorik itzuliko, ez pertsona horri, ezta berorren kausadunei ere.

Dagokionari eta ondoren adierazten den eran ordainduko zaio erretiro-ordainsaria: ehuneko bat erretiro partziala hartzen den unean, eta 65 edo 64 (erretiro aurreratu berezia hartzen badu) urte betetzen dituen unean gainontzekoa.

**11.- NORBERE ARAZOETARAKO ETA ALDI BATERAKO EZINTASUNARENGATIK BAIMENA.**

A.- Norbere arazoetarako baimena.

Sektore bakoitzean deskontua egiteko formula zehaztuko da, zerbitzuen prestazio metatuan eskatzen den baimen-egun bakoitzeko minorizatu behar diren ordainsari-eta kotizazio-egunen kopurua zehazteko.

B.- Aldi baterako ezintasunarengatik baimena.

Erretiratu partziala aldi baterako ezintasunarengatik baja-egoerara pasatzen bada, baja hori urte horretan, metatzea aukeratu izan ez balu, egin beharko zuen lan-alditik gorakoa bada, ondoriorik gabe geratuko da urteko aldi bakar batean kontzentratutako modalitatean zerbitzuak emateko aukera.

Zerbitzuaren premiek horretarako aukera ematen badute, metatutako zerbitzuak emateko beste aldi bat ezarri ahal izango da, alta medikua eman ondoren.

12.- INSTRUKZIO HONEN GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

Aplikatzen den hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak interpretatuko du instrukzio hau, bai ta beste une batean onartu eta gara daitekeena ere.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 9.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**JON AGIRRE HUERGA**



Hitzarmen kolektiboetan, haiei buruz hartutako akordioetan xedatutakoaren arabera, eta 2018ko abenduaren 31ra EAeko lan-legepeko langile finkoentzat Erretiro Partzialaren Plana onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren Akordioaren arabera, Hezkuntza Sailak txandakako kontratuak formalizatuko ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonalaren hitzarmen kolektiboak aplikatu ahal zaien eta erretiro partziala hartu duten lan-legepeko langileak ordezkatzeko. Erretiro partziala hartzeko bete behar dira hurrengo:

BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatzeko diren baldintzetan.

Adina: Erretiro partziala hartzen duen langileak, gutxienez, jardunaldi osoko kontrato eduki eta 61 urte edo 60 urte mutualista baldintza egiaztatuz geró (hau da 1967ko urtarrilaren 1etik baino lehen kotizazioak izatea) izan beharko ditu eta kotizaziopeko pentsioa eragiteko eskatzen diren baldintza orokorrak bete beharko ditu.

Gutxieneko kotizazioa: 30 urtekoa (kontutan izan gabe aparteko ordainsariei dagokiona) edo 25 urtekoa %33 graduko edo gehiagoko ezintasuna baldin badauka.

Aintzinasuna enpresan: 6 urtekoa jardun osoan, inongo etekinik gabe.

Interesatuak arau erregulatzailerei eta lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandakoa, aurkeztu beharko du, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko eta haren kotizaziopeko pentsioa kalkulatzeko.

IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak 65 urte betetzen dituen unean, edo bestela edozein egoera legalaren ondorioz kontratua iraungi dela ulertu beharra egon arte.



**HEZKUNTZA SAILEKO LAN-
LEGEPEKO IRAKASLEEN ETA
HEZKUNTZA-PERTSONALAREN
KOLEKTIBOA**

**COLECTIVO LABORAL DOCENTE Y
EDUCATIVO DEL DEPARTAMENTO DE
EDUCACIÓN**

Eskabideak aurkezteko epea /
Plazo de presentación de solicitudes:

**Zerbitzuak urtean (hilabeteak
/urtea) irizpidearekin eskatzen
den erretiro partziala:**

Eskaerak erretiro partzialerako aurreikusita dagoen data baino 2 hilabete lehenago aurkeztuko dira.

Formalizatzeko azken eguna:
apirilaren 30a.

**Zerbitzuak lehen urtean aldi
bakarrean metatzeko
irizpidearekin eskatzen den
erretiro partziala:**

Hasten den urteko ekainaren 15era arte, hau barne.

Erretiro hauek ikasturte bakoitzeko irailean formalizatuko dira.

**Jubilación parcial con
prestación de servicios con el
criterio de meses/año:**

Deberá solicitarse 2 meses antes de la fecha prevista para el acceso a la jubilación parcial.

Fecha límite para su formalización:
30 de abril.

**Jubilación parcial con
prestación de servicios
acumulada en el 1^{er} año:**

Hasta el 15 de junio del año de comienzo, incluido este.

Estas jubilaciones se formalizarán en septiembre de cada curso escolar.

Eskaerak eredu normalizatua erabiliz egingo dira.

Las solicitudes se realizarán en modelo normalizado

Aurkezte lekuak:

Langilieriaren Kudeaketa Zuzendaritza
Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak

Lugares de presentación:

Dirección de Gestión de Personal
Delegaciones Territoriales de
Educación

ERASKINA
ERRETIRO PARTZIALA HARTZEKO ESKAERA

ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK		
1. abizena:	2. abizena:	
Izena:	N.A.N. zb.:	Jaio eguna:
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:	

ESKATZAILEAREN LANPOSTUAREN DATUAK		
Lanpostua:	Ikastetxea:	Udalerria:

ZERBITZUAK EMATEKO MODALITATEA	
<input type="checkbox"/> Epealdi bakar batean	2018 Iraila
<p><input checked="" type="checkbox"/> Zerbitzuak urteko aldi bakar batean pilatuta emateko aukera bertan behera geratuko da erretiro partziala hartu duen langilea aldi baterako ezintasunagatikiko baja-egoerara pasatzen denean, iraupenak gainditzen badu ekitaldi bakoitzean egin beharko lukeen lan-denbora, eskatutako erretiro osoaren datara arte.</p>	
<input type="checkbox"/> Urteka	
<input type="checkbox"/> Aurrez zehaztutako data:	Haga clic aquí para escribir una fecha.
<input type="checkbox"/> Ikasturtean zehar	

DATU GEHIGARRIAK	
Erretiro partziala data:	
Erretiro osorako data:	Haga clic aquí para escribir una fecha.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
<p><input checked="" type="checkbox"/> Erretiro partziala duen langileak sinatutako lanaldi partzialeko kontratua erretiro osorako adinera heldu baino lehen azkentzen bada Administrazio honekin zerikusirik ez duen arrazoiren batengatik — esate baterako, heriotzagatik edo ezintasun iraunkorragatik —, Administrazio honek ez du erantzukizunik izango erretiro partziala hartu duen pertsonak zerbitzu-denbora gehigarria egin badu. Beraz, ez zaie arrazoi horregatik ezer ordainduko ez persona horri ez bere kausadunei.</p>

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> ➤ NANaren fotokopia. ➤ INSSen oinarri erregulatzaileen txostena. ➤ INSSek emandako Lan Bizitzaren txostena. ➤ INSSek emandako erretiro partzialarako baldintzak betetzen direlako txostena. ➤ Ikastetxean zerbitzuak bete nahi diren urteroko epealdia. ➤ Besteak

(e)n, (e)(a)n
Eskatzailearen sinadura

ANEXO I
SOLICITUD DE JUBILACIÓN PARCIAL

DATOS PERSONALES DEL SOLICITANTE		
Apellido 1:	Apellido 2:	
Nombre:	D.N.I.:	Fecha nacimiento:
Teléfono:	Correo electrónico:	

DATOS DE PUESTO DEL SOLICITANTE		
Puesto:	Centro:	Localidad:

MODALIDAD DE PRESTACIÓN DE SERVICIOS	
<input type="checkbox"/> Concentrada en un único periodo	Septiembre 2018
<p>✓ <i>La opción por la prestación de servicios en la modalidad de concentrada en un único período anual quedará sin efecto, cuando la persona jubilada parcial pase a la situación de baja por incapacidad temporal cuya duración sea superior al tiempo de trabajo que le correspondería realizar por cada ejercicio hasta la fecha de jubilación plena solicitada.</i></p>	
<input type="checkbox"/> Por periodos anuales	
<input type="checkbox"/> Fecha predeterminada	Haga clic aquí para escribir una fecha.
<input type="checkbox"/> A lo largo del curso	

DATOS ADICIONALES	
Fecha de la jubilación parcial:	
Fecha de jubilación total:	Haga clic aquí para escribir una fecha.

DECLARACIÓN RESPONSABLE
<p>✓ La extinción del contrato a tiempo parcial suscrito por la persona jubilada parcial que se produzca con anterioridad a la edad de jubilación plena, por cualquier causa ajena a esta Administración— como puede ser, el fallecimiento o la incapacidad permanente—, esta Administración no será responsable del tiempo de servicios adicional que hubiera podido prestar la persona jubilada parcial, por lo que no se reintegrará cantidad alguna por dichas circunstancias ni a dicha persona ni a sus causahabientes.</p>

Documentación que se adjunta
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Fotocopia del DNI ➤ Informe de las bases reguladoras del TGSS. ➤ Informe de Vida laboral emitido por el TGSS. ➤ Informe del INSS de que se cumplen los requisitos para el acceso a la jubilación parcial. ➤ Período en el que desea prestar anualmente los servicios en el centro. ➤ Otros:

En _____, a _____
Firma de la persona solicitante